

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Enpresa batek funtzionatzeko eta arrakasta izateko, bezeroak ezinbesteko atala dira. Horregatik, gure enpresak garrantzia eta arreta handia ematen dio bezeroekin harremana sortu eta mantentzeko landu behar diren baliabideei.

Bezeroekin sortzen diren harreman desberdinen artean gure enpresak hurrengoak eskaintzen ditu:

- **LAGUNTZA PERTSONALA:** Horrelako harremana edo komunikazioa gure denda fisikoetan lortu ahal izango dute bezeroek, langileei edo dendetako enkargatuei galderak eginez. Gure langileak teknologia ingurunean espezializatuak dira beraz zalantzarik gabe eskaini diezaziete bezeroei laguntza.
- **AUTOZERBITZUA:** Nola denda fisikoak Gasteizen soilik dugu web-gune bat sortu dugu beste hirietako eta herrietako jendea (Espainaren barnean) gure produktuak eskuratzeko aukera izateko. Beraz galdera edo zalantzarik izanez gero web-gunean bertan atal bat dago mezuak bidaltzeko bezeroek behar dutena argitzeko.
- **KOMUNIKAZIO TELEFONIKOA:** ahalik eta jende gehiagora heldu nahi dugu horregatik aipatutako zerbitzuez aparte, telefono zerbitzu bat ere eskaintzen dugu komunikazioa errazteko eta zerbitzu honen ordutegia da 09:00-21.00 astelehenetik ostiralera eta Carla horretaz arduratuko da dendan dagoen bitartean.

Komentatutako harreman motak jada gure bezeroak diren pertsonekin ematen dira gehien bat, horregatik bezero berriak erakartzeko publizitatea erabiltzen dugu. Hala nola, sare-sozialen bitartez, bereziki, Instagram. Gainera PICE kluba egingo dugu, asko kontsumitzen duten bezeroek deskontuak eta abantailak izateko eta lehengo astean denda fisikoan %15eko deskontua izango du eta web gunean lehenengo 48 orduetan.